

berriak

Triforio

-tik



araba
álava

Musika eta Elkartasuna

Aitzina Folk 2019


rekin

Abenduaren 1ean, igandean, Santa Maria Katedralak bisita musikal librea hartuko du berriro, Ataxia Telangiektasia (AT), oraindik sendabiderik ez duen gaixotasun arraroa eta neurodegeneratiboa, pairatzen duten pertsonen laguntzeko Aitzina Folk 2019 jaialdiak antolatutako jardueren barruan. Ekitaldia 19:00etan hasiko da eta bi orduz luzatuko da. Denbora tarte horretan, edozein unetan sartu ahal izango da katedralera, baina sarrerak kontrolatuta egongo dira, jende pilaketak saihesteko.

"Nativitas" eta "Bóreas Cámara" taldeek egingo dituzte emanaldiak, eta baita Xabier Martínez de Otxagabia biolin jotzaileak ere, katedraleko

hainbat gunetan, kriptan edo erdiko nabean, esaterako, bisitarientzat esperientzia paregabea sortzeko.

"Nativitas" lau folk musikari ezagunen apustu berria da. Horien artean azpimarragarria da Carlos Soto Celtas Cortos taldearen sortzailea. Gabon kanta klasikoak berreskuratu nahi ditu, kultura anglosaxoiaren nagusitasunari aurre egiteko. "Bóreas Cámara" taldeari dagokionez, haizez, sokaz eta perkusioz osatutako esperientzia luzeko ganbera orkestra txikia da. Lotura estua du Arabako kulturarekin, eta gauza bera gertatzen da Xabier Martínez de Otxagabia biolin jotzailearekin.



Kausa on batengatik irekita

Aitzina Folk, aurreko zazpigarren edizioa beteko duen musika jaialdi solidarioa da. Emanaldiak egingo dira Gasteizko eta Ara-



bako hainbat tokitan, abenduko asteburuetan batez ere. Helburua Aefat-en lana diruz laguntzea da. Ataxia Telangiektasia gaixotasun arraroak jotako familiak biltzen dituen elkarteak da Aefat.

Aitzina Folk-en jatorria, AT gaixotasuna zuten Hodei eta Jon Arabako haurren dago, gaixotasunaren azterketa sustatzeko, gizarte kontzientziazteko eta gaixotasuna jasaten dutenen gizarteratzea bultzatzeko. Iaz, sarreraren salmentatik eta dohaintzetatik 45.000 euro lortu zituzten.

Doako jardueri, abenduaren 1ean katedralera egingo den bisita musikal libreaki, besteak beste, dagokienez, joaten direnek, nahi badute, diruz laguntzeko aukera izango dute, bertan jarriko den "itsulapikoaren" bitartez.

Xehetasuna

Katedrala zaharberritzeko prozesuaren oinarrizko irizpideetako bat ahal den guztietan materialak berrerabiltzea da. Teilatuen kasuan, "hodi-teilen" ordez pieza berriak erabili behar izan dira, baina "bizkar-teila" asko berriro erabili ahal izan dira, eta batzuk jatorrizko tailerraren sinadura ere kontserbatzen dute, irudian ikus daitekeen bezala.



Familei zuzendutako hurrengo bisitak

Familei zuzendutako hurrengo bisitak datozen **larunbatetan** izango dira:

Azaroak 16	16:45ean	gaztelaniaz
Azaroak 23	17:00etan	euskaraz
Abenduak 7	17:00etan	gaztelaniaz

Ondareari buruzko Europako bilerak

Fundazioak arkitektura ondareari buruzko Europa mailako bi bilera garrantzitsutan hartu du parte duela denbora gutxi. Horietako lehenengoa Basilean, Suitzan, egin zen, urriaren 7tik 11ra. Bertan, Katedraletako Obra Maisuen Europako Elkartearen urteroko topaketa egin zen. Fundazioa elkarte horretako kide aktiboa da. Bilera horretan, BaselMunster DombauHütte izenekoak zuzenduta bertako katedralean egiten ari diren zaharberritze lanak ezagutu ahal izan genituen, eta baita katedral bat kontserbatzeko lanei aurre egiteko dau den moduen panorama ere.

Bigarren bilera Pisan, Italian, egin zen, urriaren 24an eta 25ean, Primaziale Pisanako Operak Europako katedralai buruz urtero antolatzen dituen gaikako saioen barruan. Fundazioak, 1994tik Santa Marian egin diren lanak aurkeztu ditu bertan.

"Asturiasetako Bidea", Donejakuerantz doan Arabako ibilbidea

Donejakue Bideen Arabako Adiskideen Elkarteak, "Asturiasetako Bidea" izeneko dinamizatzeko proposamena aurkeztu zuen joan den urriaren 18an Fundazioaren Aterpetxean. Ekitaldian, Donejakue Bideak igarotzen dituen Arabako udalerrietako alkateak egon ziren, eta baita Amaia Goikoetxea Eusko Jaurlaritzako Kultur Ondarearen Zentroko kidea, Elena Gómez Chico Arabako Foru Aldundiko Ingurumen zerbitzuko burua, Delia García Vitoria-Gasteizko Udaleko Kongresu eta Turismo Zerbitzuko Burua eta Laureano García Díaz Iparraldeko Bidearen Elkartearen Federazioko presidentea ere.

Topaketan, berreskuratutako bide horren jatorriari eta ezagutzeko aurrera eraman den ikerketa prozesuari buruzko xehetasunak eman ziren. Halaber, etapak perfilatu ziren eta bidea ezagutarazteko eta dinamizatzeko zenbait ekimen adostu. Bideak Agurain, Vitoria-Gasteiz, Argantzun, Salcedo, Espejo eta Boveda herriak hartzen ditu.

Pasealdi birtuala webgunetik, denbora bidaia.

Fundazioaren www.catedralvitoria.eus webguneak, bere baliabide anitzentean, Katedral barrutik egin daitekeen benetako denbora bidaia eskaintzen du. 2001etik, ustiaketa lanak hasi baino pixka bat lehenagotik, aldiari behin argazki panoramikoak eta esferikoak egin dira, obren bilakaera modu arinean eta ondo ikusteko moduan jarraitzeko. Tresna horretara, hasierako orriko "bisita birtuala" botoitik sar daiteke, edo **vr360.catedralvitoria.eus/** helbidera zuzenean joanez.

